

- 6. Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Aralar, Mistoa-Eusko Alkartasuna, Mistoa-Ezker Batua Berdeak eta Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeek egindako legez besteko proposamena, transexualitatea gaixotasun mental gisa despatologizatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [\(09\11\02\01\0350\)](#)

Aralarreko legebiltzar taldetik gure poztasuna agertu nahi dugu gaur, lehenengo aldiz eta babes oso zabalarekin, transexualitatearen despsikiatrizazioaren aldeko ekimena onartuko delako.

Lotsagarria bada ere, egun transexualitatea gaixotasuntzat jotzen dute erreferentziazko erakunde psikiatrikoek, alegia, Osasunaren Mundo Erakundeak eta EEBBko Psikiatria Elkarteak. Are gehiago, erakunde horiek biek homosexualitatea buruko gaixotasunen zerrendatik ken zezaten ere urteetako aldarrikapenak behar izan ziren. Izan ere, 70eko hamarkadan lesbiana izatea, oraindik, gaixotasuna zen.

Eta, gaur dagokigun gaiarekin ere gauza bera gertatuko da hemendik gutxira, transexualitatea ez delako inongo gaixotasuna eta ez da inoiz izan. Gaixotasuna, izatekotan ere, transfobia eta homofobia dira.

Gaur onartu behar dugun LBP aurrerapauso oso garrantzitsua da hainbat pertsonak gizartean jasotzen duten estigmatizazioarekin bukatzeko. Gizarteari azaldu behar diogu uste dena baino ohikoagoa dela transexualitatea eta ez dela inolaz ere gaixotasuna. Era berean, uste dugu garrantzitsua dela transexualak diren pertsonak gizartean gehiago nabarmentzea eta parte-hartze aktiboagoa izan dezatela egoera honi amaiera emateko.

Gaur onartuko dugun testua aurrerapauso handia izan arren, Aralarren irudiko bi aspektu aipatu beharko genituzke. Alde batetik, euskal erakundeak nazioarteko egituretan egongo balira ez genuke itxaron behar izango Espainiako Gobernuak hau onartu arte, adibidez, Nazio Batuen erakundearen aurrean aurkezteko. Beste alde batetik, legez besteko proposamenean esaten denean “(...) *zenbat aspektutan gaixotasun mental katalogatzen baitute*”, guk argi eta garbi esan behar dugu, tamalez, eta gauzak aldatu arte, erakunde bi horiek diotena dela pertsona transexualak buruko gaixoak direla bere osotasunean, eta jarrera horrek transfobia bultzatzen duela.

Aralarrek, talde proposatzaile gisa, argi dauka transexualitatearen izaeraren askapenerako prozesua itzulezina dela, transexualitatearen aurkako gorrotoa aurreiritzietan oinarrituta baitago.

Dena den gaurko onarpenarekin batera hainbat pausu geratzen zaizkigu konpontzeko:

Era horretan, gure taldeak homofobiaren eta transfobiaren aurkako protokoloa aldarrikatzen du, Katalunian jada egin duten legez, era horretan, salaketa homofobo baten aurrean Ertzaintzak, eta erakunde publikoek, berezko erantzuna eman dezaten. Hala, esaterako, eta Aralarren ekimenez, Kataluniako homofobiaren kontrako behatokiaren ordezkaria Legebiltzarrerara etorriko da Kataluniako esperientziaren berri ematera, hemen ere, bide horretan ekin diezaiogun.

Bestalde batetik, joan zan urtetik martxan dago Gurutzetako ospitalean transexualitatean erreferentziazko unitate bat, transexualei era integral baten zerbitzua emateko balio duena; baina prozesuari, oro har, heldu ahal izango dioten profesional eskarmentudunak behar dira transexualitatea behar bezala tratatzeko.

Hau guztia kontuan izanda ere, gaur lortuko dugunaz harro egon gaitzke, lehenengo aldiz, 2010ean, Legebiltzarrak transfobiaren aurkako benetako jarrera erakutsiko duelako. Gu pozten gara, eta baieztatu borobila emango diogu proposamenari.